



ZESTOAKO 2018KO UDALEKU IREKIETARAKO KOORDINATZAILE LAN-POLTSA

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Zestoako Udalak antolatzen dituen udaleku irekietako koordinatzailea kontratatzeko lan-poltsa lehiaketa bidez osatzea.

Kontratuaren iraupena bi hilabetekoa izango da, ekainaren 1etik uztailaren 27ra bitartean; eta lanaldia, Udalak aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontuan izanik ezarriko duena izango da.

2. Izangaien baldintzak.

Onartua izateko eta lehiaketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- 18 urte beteta izatea edo 2018an betetzea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluaren jabe izatea.
- Aisialdiko begirale agiria izatea.
- Gaixotasunik ez edukitzea, ezta akats fisiko nahiz psikikorik, postuan bete behar diren funtzioak betetzea galaraziko lukeenik. Beharrezkoa izanez gero mediku-txostena eskatuko da.
- Europako Batasuneko edozein estatuko edota hitzartutako herrialde bateko nazionalitatea edukitzea, abenduaren 29ko 55/1999 Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Euskara jakitea: mintzatzeko trebetasuna izatea. Beharrezkoa ikusiz gero, azterketa egingo zaio izangaiari trebetasun hau frogatzeko.
- Diziplinazko espedientea dela medio, Estatuko, Autonomia Erkidegoko nahiz udal erakunde publikoen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta ere herri eginkizunetan aritzeko.
- Izendatua suertatuko balitz, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezintzat jotako lanetan ez aritzea lanpostuaz jabetzeko egunean.
- Natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.

Eskatzen diren baldintza hauek izena emateko epea amaitzen denerako beteta eduki behar dira.

3. Eskabideak eta dokumentazioa.

Eskabideak udaletxean aurkeztu beharko dira **apirilaren 27a** baino lehen.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondokoa izango da:

- Eskabide-orria beteta (ikus eranskina).
- Natura sexualeko delituen gabeziaren ziurtagiria edo erantzukizunezko adierazpena (ikus eranskina).
- Nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.



ZESTOAKO UDALA

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Aisialdiko begirale agiriaren fotokopia konpultsatua.
- Lehiaketan baloratzen diren merituetako agirien fotokopia konpultsatuak.

Oharra: 2017ko koordinatzailearen lan-poltsan izena emandakoek, ez daukate orduan aurkeztutako dokumentazioa berriro aurkeztu beharrik.

4. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuta egongo da:

LEHENDAKARIA: Zestoako Udaleko gazteria dinamizatzailea. Ordezkoa: Zestoako Udaleko ingurugiro teknikaria.

EPAIMAHAIKIDEAK:

- Zestoako Udaleko kirol dinamizatzailea. Ordezkoa: Zestoako Udaleko gizarte langilea.
- Zestoako Udaleko euskara teknikaria. Ordezkoa: Zestoako Udaleko koordinatzailea.
- Zestoako Udaleko kultur teknikaria. Ordezkoa: Zestoako Udaleko administrari bat.

IDAZKARIA: Zestoako Udaleko idazkari-kontuhartzailea. Ordezkoa: Zestoako Udaleko administrari bat.

Epaimahaia ezin daiteke eratu ez jardun, kideen erdiak, titular nahiz ordezko, baino gehiago bertaratzen ez baldin badira. Nolanahi ere, lehendakariak eta idazkariak bertan egon beharko dute.

5. Hautaketa prozesua.

Lehiaketa bidez arautuko da hautaketa eta honako meritu hauek baloratuko dira:

Aisialdiko titulazioa:

- Aisialdiko zuzendari agiria.....6 puntu
- Aisialdiko zuzendari ikastaroko atal teorikoa.....4 puntu

Heziketarekin harremana duten ikasketak (Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza, Haur Hezkuntza, Kirol Monitoretza, Gizarte Integrazioa edota Gizarte eta Kultur Animazioa):

- Lizentziatura.....4 puntu
- Gradua.....4 puntu
- Diplomatura3 puntu
- Heziketa Zikloak2 puntu
- Ikasketak amaitu gabeko kasuetan, gairatutako ikasturte bakoitzarengatik.....puntu 1



ZESTOAKO UDALA

Prestakuntza-ikastaroak (gehienez 5 punturekin baloratuko da): aisialdia, jolasa, genero berdintasuna umeen aisialdian, haurren parte-hartzea, etab. bezalako gaiekin lotura duten ikastaroak.

- 4 orduko ikastaro bakoitzarengatik.....0,3 puntu

Euskara maila: EGA edo baliokidea.....3 puntu

Lan-esperientzia:

- Udaleku ireki zein itxietan, 3-18 urte bitartekoen aisialdiko zuzendari edo koordinatzaile gisa aritu izana..... 0.7 puntu/hamabostaldiko
- Udaleku ireki zein itxietan, 3-18 urte bitartekoen aisialdiko begirale gisa aritu izana..... 0.5 puntu/hamabostaldiko
- Ludoteka, gazteleku, aterpetxe edo baserri-eskola batean, 3-18 urte bitartekoen koordinatzaile lanak egiteagatik.....1,5 puntu/urteko
- Ludoteka, gazteleku, aterpetxe edo baserri-eskola batean, 3-18 urte bitartekoen hezitzaile lanak egiteagatik.....puntu 1/urteko
- Heziketa behar bereziak dituzten haur, nerabe zein gazteekin aisialdiko koordinatzaile lanak egiteagatik.....puntu 1/urteko
- Heziketa behar bereziak dituzten haur, nerabe zein gazteekin hezitzaile lanak egiteagatik.....0,8 puntu/urteko
- Aisialdi talderen bateko kide izatea puntu 1/urteko

Berdinketarik dagoen kasuetan, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira hurrenez hurren:

- *Lan-esperientzia.*
- *Zuzendari titulua izatea.*
- *EGA edo baliokidea izatea.*
- *Ikasketak.*

6. Onartuen eta baztertuen zerrendak.

Epaimahai kalifikatzaileak lortutako puntuazioaren ordenaren arabera zerrenda Alkatetzari igorriko dio; hark hasierako onarpena emango dio zerrendari eta Zestoako Udaleko iragarki taulan eta udaleko webgunean argitaratuko da **maiatzaren 18rako**. Zerrenda ikusgai egongo da 5 eguneko epean, nahi duenak alegazioak egiteko. Epe horretan alegaziorik izan ezean, erabakia behin-betiko onartutzat emango da.

Zerrenda hau urtean zehar gazteria arloan sor daitezkeen aldi baterako pertsonal beharrei aurre egiteko erabiliko da.

Kontratatu izateko, ezinbesteko baldintza izango da beharrezkoak diren bilera eta prestaketa egunetan, hau da, **ekainaren 7, 8, 14 eta 15ean 17:30-20:00 bitartean**, prestakuntzarako eta programazioa osatzeko aurreikusitako ordu guztietan asistentzia betetzea. Norbaitek egunen batean ezin badu etorri, justifikatutako arrazoi batengatik



ZESTOAKO UDALA

izan beharko du, eta maiatzaren 23a baino lehen idatziz aurkeztu beharko dizkio bere arrazoiak Zestoako Udalari, azken honek bere egoera baloratu dezan. Baldintza horiek ez betetzeak, hautagaiak zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko du automatikoki. Era berean, zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko luke, prestaketa bileretan ikusiko balitz prozesuan parte hartzeko baldintza guztiak ez direla betetzen.

Zestoan, 2018ko apirilaren 10ean



Jose txo Mendizabal Irigoyen
Alkatea